

BERTSOEN IXOKOA

**“BETI-JAI” JUBILATUEN ELKARTEKO
OMENALDI-MEZAN**

Udaberria hoberenean,
dena berde, dena lore;
gure bizitzan, berriz, bestera:
kolore gris edo more;
hona gu, Jauna, esperentziaz
aberats, indarrez pobre;
elkartasuna dugu guk amets,
Zurekin bada, zer hobe?
gorputza ajez eta urtetsu,
baina arimaz gara noble.

Lurrak musu bat bidaltzen digu,
izarrek keinu elkarri,
naturak bere barne aldetik
bake-mezua ekarri;
hemen gara gu, zerbaiten bila,
zorionaren egarri,
bihotz barrutik Zugana doaz
gure kantu ta aldarri;
zure eskua izan bekigu
azken etapan euskarri.

*Luis Baraiazarra
Markina-Xemein, 2015-05-23*

FERNANDA ANSOLARI

(bere urtebetetzean)

Eder ageri zaizu bizitza
bistatik harantz, gogoan,
maitasunaren barru-barruko
ikuste ederragoan;
esperientziak jarriko zaitu,
seguru asko, lehengoan,
fedea eta itxaropenak,
berriz, jarriko geroan.
Honezkero zuk jakingo duzu
bizitza zein azkar doan.

Maiatza beti etorri ohi da
lozez oso oparoa,
guztietatik apartatu dut
Fernandantzat gogokoa,
laurogeita hamar urte izanik,
hainbeste petalozkoa;
iaz lore bat, aurten beste bat:
urtez urte landuz doa
poliki eta bitxiz beterik
zure lorezko koroa.

*Luis Baraiazarra
Markina-Xemein, 2015-05-30*

AINHOA IREGI URIARTE

(15. urteurrena)

Haizeak zakar jo zuenean
landaretxea zapuztu,
eta ez soilik landaretxea,
etxea ere biluztu.
Zu joan zinen hartan, Ainhoa,
bai samin eta disgustu!
Harmoniazko irribarrea
gure ezpainetan izoztu,
baina esperantzaz, zorionean,
ez gara oraindik hustu.

Laino itsua pausatu zaigu
mendi arteko altzoan,
ta eguzkia keinuka dabil
haren gaineko auzoan;
lauso artean garela ere,
goi-eguzkia gogoan.
Betiko izango zara guregan,
betiko gure ondoan,
bistaz haranzko fede-ikuste
askozaz ederragoan.

*Luis Baraiazarra
Markina-Xemein, 2015-06-20*

**BERA KRUZ-KO LAGUNEI
AGUR EGITEKO BERTSOAK**

1. Ikasturte azkena
helduaz batera
kantari hasi gara
betiko antzera;
bertsoz gozaten dugu
urteko bilera,
hemen amaitzen baita
aurtengo ibilera.
2. Urte hau izango zen
nahiko emankorra,
batzutan gozoa ta
bestetan gogorra;
hemen gelditu zaigu
martxan zen motorra...
egin dezagun, bada,
alaiki montxorra.
3. Hamaika buruhauste
izan dugu sarri,
une batzuk izaten
dira kezkarri;
baina aurrera goaz
lagunduz elkarri,
umeak gidatzea
baita bizigarri.

4. Lan horretan emanik
indarrik onenak
hortxe hustu ditugu
barruko ahalmenak;
lilurutzen gintuen
haurren gozamenak,
alaigarri gertatuz
haien hots ozenak.

5. Etapa bati agur
gaurko afariaz,
esker ona guztioi
adieraziaz
agur espirituzko
goi-mandatariaz,
haizearen txistuaz
nahiz zirimiriaz.

6. Buruan gurutzatzen da
hamaika teori,
ez da esaten erraz
barruan den hori;
agurraren orduan
bihotza dut gori:
eztiaren gozoan
ozpin tantatxo bi.

7. Zirikatzen gaituzte
gauzatxo ugarik,
onena hautatzera
jo ohi dugularik.
Bera Kruzen ez naiz ni
egongo jadanik,
baina bihotzak ez du
inongo mugarik.

8. Bera Kruzen emanik
hamazortzi urte,
ezagutu dut euri,
lehor ta elurte;
bizitzak jarria nau
gaur hortik aparte
agur, lagun guztiok,
nahi duzuen arte.

*Doinua: Amerikara noa
Luis Baraiazarra
Markina-Xemein, 1990-06-29*